Hain natura ingurune osasuntsua mantentzeko, Ibarrangeluk garraio publikoko eskaintza zabala dauka, ez dago autoa hartu beharrik. Bizkaibuseko hiru autobus igarotzen dira herritik, Gernika-Lumo eta Ibarrangelu lotzen dituzten bi —herrien artekoa eta hondartzetakoa (A3526)— eta Bilbo eta Lekeitiokoa (A3513). Horrez gain, herriko autobus zerbitzua propioa dago, Gametxo eta Elexalde lotzen dituena.



Ibarrangeluko
Udala ateak zabalik!

Gozatu ingurua zainduz

**IBARRANGELUKO UDALA**
Elexalde, 1
IBARRANGELU
tf.: **94-627 60 04**
faxa: 94-627 62 95
udala.ibarrangelu@bizkaia.org
**www.ibarrangelu.eus**
**Jendearentzako arreta ordutegia:**
astelehenetik barikura, 8:00etatik 14:30era.



**Busturia** *Aisialdian osasuna zaintzen*

Herriaren eta herritarren osasuna zaintzen ditu Busturiko Udalak eta, horretarako, besteak beste, herritarrek askotariko kirol eskaintzak dituzte aukeran udalerrian.

Kirol jarduerak beharrezkoak dira gorputza eta burua osasuntsu mantentzeko, eta horiek egiteko instalazio egokiak dituzte Busturian.

Ariketa fisikoak lantzeko makinez beteriko parke osasuntsuak edo jolasgune osasungarriak asko ugaritu dira azken urteetan Euskal Herrian, eta Busturiko San Kristobal auzoan parke bio-osasungarria eraikitzea izan zen udalaren apustuetako bat. Gainera, iazko azaroan, kirola egiteko makina gehiago ipini zituzten, kopurua bikoiztu zuten, eta ordutik, gune horretan dagoen umeentzako jolaslekuaren bi aldeetan kokatuta daude makinak, bi lerrotan.

Kaleko kirol gune hori batik bat adineko pertsonei zuzenduta dago. Kirol makinak ondo erabiltzen jakitea beharrezkoa da norberaren gorputzean kalterik ez eragiteko, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskaintzari esker, ikasturte honetan ikastaroak eskaini dituzte bertan. Busturiarrak monitore baten laguntzagaz aritu dira makinak ondo zelan erabiltzen diren ikasten. Esperientziarekin pozik daude parte hartu dutenak eta udala eta, horregatik, datorren ikasturtean ere eskaintza errepikatzeko asmoa daukate udal arduradunek.

Kirol eskaintza zabala dago udalerrian, eta horren adibide dira frontoiak, Altamira auzoko tenis zelaia eta Itsas-Adar Futbol Zelaia eta udalak eskaintzen dituen kirol ikastaroak. Gainera, tenis ikastaroa emango dute ekainaren 27tik uztailaren erdialdera arte.

Udalerrian hiru frontoi dituzte: bi Axpe auzoan eta bat Altamira auzoan. Frontoien erabilpena doakoa bada ere, Axpeko frontoi estalia erabiltzeko erreseba egin behar da udaletxean.

**Gimnasio txikia, udazkenerako**

Bestalde, Axpe auzoko Aingerubideko Kultur Etxean balio anitzeko gela daukate. Hirugarren adinekoentzat gimnasia, cardio kick boxing eta pilates ikastaroak eskaintzen ditu udalak.

Goiko solairurako, berriz, udalaren kirol eskaintza handituko duen proiektua daukate esku artean. Gimnasio txiki bat egingo dute udalerrian erroldatuta dauden adinez nagusientzat, eta aurreikuspenen arabera, udazkenean zabalduko dute; irailaren amaieran edo urriaren hasieran martxan ipintzea gura du udalak. Erabiltzaileak euren txartelekin sartu ahalko dira, 06:00etatik 23:00etara bitartean.

Norbere burua zaintzeko eta sasoian egoteko zerbitzuak askotarikoak dira Busturian. Aisialdiaz osasuntsu gozatzeko herria da Busturia.



**BUSTURIKO UDALA**
Axpe auzoa 1
(Andra Mari Eleizaren ondoan)
BUSTURIA
tf.: **94-687 00 50**
faxa: 94-687 00 63
alkatea@busturia.eus

**www.busturia.eus**

# Prebentzioan sakontzen

MARI MARTIN
(212 kolegiatua 2005etik)



Bezeroei ahalik-eta zerbitzurik onena ematea da Podoklinika Bermeoko Mari Martinen helburua; hala, lana eta ikasketak uztartzen ditu. Ohiko zerbitzuak emateaz gain, podologia pediatrikoaren munduan gehiago sakontzen dabil gaur egun Mari Martin.

Uste du oso garrantzitsua dela prebentzioa, eta umetatik gauzak aztertuta asko konpentsatu daitekeela: “Orain arte gorputzak esaten zuenaren zain itxaron izan da. Txikitatik hasita, hala ere, gerora, gauzak errazten dira, prebentzioa hasita dagoelako”.

Lanketa, batez ere, umeak oinez hasten direnean hasten du podologoak, nahiz eta haurra goizago ere aztertzea posible den. Asimetriarik edo zer edo zer arraroa dagoen begiratzen dute, eta arraroa izaten da tratamenduak 4 urte baino arinago hastea, betiere, salbuespenak daude. Hala ere, prebentzioa garrantzitsua da, umea ondo aztertu behar da, eta beharrezkoa baldin bada beste espezialistaren batengana deribatu. Talde lana da umearen oinak aztertzea, ez baita podologoaren lana soilik. Podologoak jakin behar du umeak fisioterapeuta, mediku edo traumatologo baten beharra daukan ala ez, eta alderantziz ere bai.

Mari Martinek beti gustuko izan du umeen podologia eta gero eta gehiago ikusten ditu umeak oin-puntetan, hankak edo belaunak barrurantz... “Ohikoena izaten da umeei oin zapala edo oin kurbatua daukaten ikustea, baina hori baino gauza gehiago daude”. Gaia ezezaguna dela uste du, eta umeek dauzkaten arazoetako asko oinetatik datozela dio.

Zerbitzu hobea eman asmoz, ekainean bulego berri batera lekualdatuko da: Trake kalea 1. Batetik, leku zabalagoa izango da miaketak egiteko; eta bestetik, familiek leku hobea izango dute zain egoteko; praktikoagoa izango da.




## AHOLKUAK

**Higienea**
- Egunero hankak ondo garbitu eta lehortu. Hidratatu.
- Atzazkalak moztu forma zuzena emanez.
- Kailuen aurkako produkturik ez erabili.

**Oinetakoak**
- Moda garrantzitsua da gaur egun, baina ezin da lehentasunezkoa izan.
- Umeen oinetakoek ezaugarri egokiak izatea oso garrantzitsua da, batez ere ume oso txikien kasuan, arazoak prebenitzeko.

**Mugimendua**
Garrantzitsua da mugimenduan egotea muskulatura garatzeko eta zirkulazio ona izateko.

**Kirola**
Oinatzak/oinen arrastoak berrikusi, etorkizunean izan ditzakegun lesioak edota minak saihesteko.

PODOKLINIKA BERMEO
Trake kalea, 1 · BERMEO
· 94-602 84 33

TTIPI TTAPA



Lan taldea: **Ianire Davila Ezkurra** podologoa, **Oneka Ezkurra Davila** optiko optometrista, **Judith Herrera Ispizua** nutrizioa eta kinesiologia, **Saioa Fernandez Arza** eta **Leire Salcines Rio** kosmetika organikoa.

Karlos Gangoiti, 6 behea (GERNIKA-LUMO)
**• 94-465 01 47 •**
**www.ttipittapa.com**
@ttipittapa_

# HAINBAT ESPEZIALITATE ELKARLANEAN

Ez gara bezeroaren sintomak begiratzera mugatzen. Gure helburua da sintoma horren jatorria identifikatzea eta hori hobetzea. Pertsona osotasunez aztertuta sintomaren hobekuntza prozesua azkarragoa eta eraginkorragoa delako.

**Podologia** zerbitzuan ohiko oinen tratamenduez gain azterketa biomekaniko eta posturalak egiten dira.
**Optiko optometrista** zerbitzuan begia eta bere funtzionamendua hobetzen laguntzen dugu horrek ekarri dezakeen sintomak (buruko mina, bizkarreko mina, urduritasuna...) lasaituz.
**Nutrizio eta kinesiologia holistikoa**ren zerbitzuan, pertsonen beharrizanen arabera euren elikadura egokitzea da gure zeregina. Ez da bakarrik dieta egitea, baizik eta kinesiologia emozionalaren bidez kontzientzia hartzea, zein den gure gatazka jatorria, gure gorputza lehenetsiz nola elikatzea da helburua.
**Kosmetika organikoaren tratamenduak** eskaintzen ditugu, Nafarroako Dulkamara bamboo laborategiaren biokosmetika erabilita, aurpegiko azala lantzen dugu. Horrez gain, gorputza egoki eta mimoz zaintzeko kosmetika naturala eskaintzen dugu, eta baita umeentzako kosmetika naturala, jostailuak eta osagarriak ere.





**Jone Badiola Podologia Klinikako lan taldea.** Ezkerretik eskumara: Garaipen Ugarteburu Barainka podologoa, Jone Badiola Iriondo podologoa eta patomekanikan aditua eta Lore Aretxabaleta Juaristi podologoa eta fisioterapeuta.





# Zure oinetan aditua

Podologia gela puntako teknologiaz baliatutako aparailuz hornituta dago. Bertan prebentzioa, tratamendua eta jarraipena eskaintzen ditugu, bezero bakoitzaren premiei egokituta.

Oso garrantzitsua da haurren oinazpiaren bilakaeraren jarraipena egitea, patologia bat garaiz detektatzeak arazo hori errotik konpontzeko tratamendu bat aplikatzearen edo ez aplikatzearen arteko aldea eragin baitezake.

Diagnostiko eta tratamendu egokia garaiz egiten bada, 3-4 urte bitartean, oinetako eta ibilerako arazo gehienak tratamendu sinpleen bidez konpon daitezke, hala nola, ariketa egokituak, txantiloi pertsonalizatuak eta ferulak, besteak beste.



**7-8 urte bitartean jarraipena egitea komeni da**

Haurraren martxan inolako anomaliarik antzeman ez arren, garrantzitsua da oinazpiaren azterketa biomekanikoa egitea. Haurren oinak etengabe eboluzionatzen ari dira, eta oso elastikoak dira. Agian, hasieran ez dute minik aipatzen, baina hobe da haurraren martxa egokia ziurtatzea eta aldizkako azterketak egitea.

Ez dugu ahaztu behar haur bakoitzaren oinetara egokitutako kalitatezko oinetako batek arazoa konpontzen lagunduko lukeela.

## ZERBITZUAK

- **Kiropodia**
- **Oinen miaketa biomekanikoa**
- **Umeentzat zuzendutako podologia**
- **Podologia geriatrikoa**
- **Kirolarientzako podologia**
- **Behatzazkaleko kirurgia**

JONE BADIOLA
*Podologia klinika*

San Ignazio, 37 behea ONDARROA
**94-683 31 81**
**www.jonebadiolapodologia.com**
jonebadiolairiondo@gmail.com

# Larruazala zaintzeko AHOLKUAK

Udaberriko lehentasunetako bat azala zaintzea da. Ondo dakigunez, odola aldatzen den garaia da. Eguzkiaren lehen izpiak, haiekiko esposizioa eta ingurunearen aldaketak hasten dira sasoi honetan, eta, ezinbestean, hori guztia gure azalean islatuko da.

Nola saihestu dezakegu? Oinarrizko aholku erraz batzuk jarraitzea nahikoa da emaitzak lortzeko.

**Beti eguzki babesarekin**

Ez da beharrezkoa udaberria heltzea azalaren zainketaz kezkatzeko. Urtaroa edozein dela ere, beti babesle on batekin atera behar dugu kalera. Eguzkitako krema bat eman ezean, lehenengo eguzki izpi horiek orbanak sortu ditzakete. Daukagun azalaren araberako krema ematea, hortaz, ezinbestekoa da.

**Larruazal hidratatua edertasunaren sinonimoa da**

Hidratazioa oso garrantzitsua da. Horrela bakarrik eduki dezakegu azal leuna. Asko dira aplikatu ditzakegun tratamenduak: alde batetik, etxeko maskarak ditugu eta, bestetik, lurrindegian saltzen diren produktuak. Bakoitzak bere larruzalari egokien datorzkion produktuak aurkitzea da azala ondo zainduta edukitzeko gakoa. Erretinola edo azido hialuronikoa bezalako osagaiekin akabera askoz leunagoa da, adierazpen-lerroetatik urrun eta larruazal leunagoa eta delikatuagoa izatea ahalbidetzen baitute.

**Astean behin, esfoliazio on bat**

Hildako zelulak kendu behar ditugu, gure aurpegia ilundu edota apur bat zahartzen baitute. Egia da miraririk ez dela lortuko, baina emaitza onak emango dizkigu. Horregatik, gomendagarria da astean behin esfoliazio on bat egitea. Merkatuan eskuragarri dituzu kremak, baina zure aurpegiko krema pixka batekin eta azukre koilaratxo batekin ere egin dezakezu zuk zeuk. Masaje leun batekin azal iragazkorrago eta leunagoa ikusi ahal izango duzu, distira naturalagoa duena eta edozein produktu askoz hobeto xurgatuko duena.



**Ez ahaztu dieta orekatuaz**

Udaberrian gure larruazala zaintzeaz pentsatzen dugunean lehen burutazioa kremei eta tratamenduei lotuta egoten da sarri, baina gogoratu behar dugu zaintza guztiak barrutik hasten direla. Horretarako, dieta orekatu baten aldeko apustua egin behar dugu. Gantz gutxiago, barazki gehiago eta egunean bi litro ur inguru edateak osasuntsuago egingo gaitu eta, oro har, gure gorputzak ere eskertu egingo digu.

**Ariketa fisikoak azalean dituen onurak**

Ezin ditugu ahaztu ariketa txiki bat egiteak eskaintzen dizkigun abantaila guztiak. Alde batetik, poroak izerdiarekin ireki egiten dira, eta horrek toxinak eta hildako zelulak hitzen ditu. Gorputza mugituz, zahartzea atzeratzen laguntzen diguten hormonak eta substantzia naturalak indartzen ditugu. Oxigenazio hobea ere badago, odol-zirkulazioa handitzen delako.

Udaberrian azala zaintzea iraunkortasun ariketa bat da, baina emaitza harrigarriak utziko dizkigu. Hasiko al gara?

Informazio iturria: bezzia.com


Peeling korporalak
INDIBA
(radio frecuencia)
Aurpegia-gorputza
Terapeutiko
Estetiko
Masaje
Terapeutiko eta Relajanteak
Aurpegiko tratamentuak
Irune
Terapia & Estetika zentroa
Sabino Arana etorbidea, 8 behea
48280 LEKEITIO
94-684 29 83


ainhoa
estetika zentroa
Gorputz tratamenduak
Aurpegiko tratamenduak
Kiromasajeak
Masajea harri beroekin
Laserra
Diodo laserra
Minik gabeko tratamendua.
Urte osoan egin daiteke;
Beste sistema batzuk baino lau aldiz
azkarragoa eta larru-mota guztietarako.
Fidagarritasuna eta emaitzak.
Mikropigmentazioa
Manikura eta pedikura
Aromaterapia
Solariuma
619 77 4547 • 605 74 94 19
Okerra kalea z/g MARKINA-XEMEIN

# EDERTZE ZENTROA • OPTIKAK ETA ENTZUMEN ZENTROAK
## (LEKEITIO • MUTRIKU • ONDARROA)

EDERTZE ZENTROA

RAKEL BILBAO
ZENTRO MEDIKU ESTETIKOA




## RAKEL BILBAO ZENTRO MEDIKU ESTETIKOA

Santa Katalina, 2 behea • LEKEITIO • **679 10 23 94**

**www.rakelbilbao.com**

- Aholkularitza kosmetikoa
- Medikuntza estetikoa
- Begiak eta bekainak
- Tratamenduak
- Masajeak
- Esku eta oinetako estetika
- Laserra
- Depilazioa
- Makilajea
- Aparatologia mediku teknologia
- Tatuajeak

OPTIKA




## ALAZNE OPTIKA OPTIKA ETA AUDIOLOGIA

Jose Mª Altzibar Etorbidea, 1 • MUTRIKU • **943-60 31 54** • alazne.optika@gmail.com

- Begien osasunaren eta graduazioaren azterketa
- Ikusmen gaitasuna
- Errefrakzioa
- Begien osasun azterketa (prebentzioa).
- Ikusmen binokularra eta abar...
- Audio protesista, zentroan bertan
- Entzumenaren azterketa, audiometria
- Protesien adaptazioa
- Bainurako tapoiak
- Miopia kontrola

**Ordutegia**

Astelehenetik barikura: 09:30-13:00 / 17:00-20:00   Zapatuak: 10:00-13:00

- Opari txartelak

OPTIKA

OPTIKAVITORIA
OPTIKA - AUDIFONOAK




## VITORIA OPTIKA OPTIKA ETA AUDIOLOGIA ZENTROA

Erribera, 16 • ONDARROA • **94-613 41 38** • mvitoria@cnoo.es

**www.optikavitoria.com**

UNE 175001 KALIDENDA

- Osasun Sailak homologatutako Audifonoen Zentroa
- Etxean ere atenditzen dugu
- Bainurako tapoiak momentuan egiten ditugu
- Audifono txikienak
- Teknologia berrienak, pilarik gabeko audifonoak, mugikorrerako eta telebistarako konexioarekin

**Ordutegia**

Astelehenetik barikura: 09:30-13:30 / 16:30-20:00   Zapatuak: 09:30-13:30

# EGUREN: OPTIKA ETA ENTZUMEN ZENTROA
(GERNIKA-LUMO)

## PAZIENTEEN BEHARRETARA EGOKITUTAKO MIOPIAREN KONTROLA

Urteetako eskarmentuarekin, hurbileko tratua, zerbitzu profesionala eta teknologia berrietara eta pazienteen beharretara egokitutako tratamenduak eskaintzen ditu Eguren Optikak. 1966an sortutako enpresan, 22 urte daramatza aurrez aurreko kontsultetan lanean ikusmen osasunaz arduratzen den Nerea Gomezek, miopiaren kontrolean espezializatuz.



Miopiaren kontrola egitea “oso garrantzitsua” da, egungo bizimoduaren ondorioz, gero eta miopia kasu gehiago daudelako, gazteetan batez ere. Hori dela eta, pazienteei miopia neurtzen eta kontrolatzen die Gomezek, horretarako egiaztatuta dauden produktu berri eta egokienak erabiliz.

Paziente bakoitzarentzako egokitutako tratamenduak eskaintzen ditu Eguren Optikak, bakoitzaren profilera, beharrizanetara eta bizimodura doitutakoak; izan ere, adin bera izan arren, profil guztiz desberdina eduki dezakete pazienteek. “Helburua bera da, baina konponbideak asko daude”.

**Essilor Expert Ambassador**
Lente oftalmikoak eta ekipamendu optikoa ekoizten dituen Essilor enpresagaz lan egiten du Egurenek, eta Essilor Experts Ambassador marka du: “Berrikuntzetan lehenengoak dira, eta euren produktuak saltzeko trebatzen gaituzte. Lehentasuna dugu horiek saltzeko eta hedatzeko”.

94-625 03 23 · 688 72 24 03



## AUDIFONO DIGITALAK ETA TAPOI PERTSONALIZATUAK, ESKURA

Audifonoen teknologiarik aurreratuena aurkitu daiteke Eguren Entzumen zentroan. Entzumenaren tratamenduan modu pertsonalizatuan aholkatzen du Sergio Gomezek, eta norberaren beharrei konponbidea emateko irtenbideak eskaintzen ditu. Edozein arazo garaiz identifikatzea ezinbestekoa da pazientearen egunerokotasunera ondo egokitzen den irtenbidea bilatzeko, eta, horretarako, audiometriak egiten ditu. Behin horiek eginda eta belarrien neurriak hartuta, moldeak atera eta bakoitzarentzako audifono eta tapoi egokienak bilatzen ditu.

Gaur egun audifonoak erabiltzea oso ohikoa da, eta azken aurrerapen teknologikoak ikusita, horiek erabiltzeak ez dakar inolako zailtasunik. Audifono digital horien katalogo zabala dute entzumen zentroan, hainbat forma, kolore eta prestaziokoak, pilen beharrizanik ez dutenak. Kargatzeko eta erabiltzeko errazak dira, automatikoak. “Pazientea eroso sentitzea gura dugu”.

Tapoiak ere neurrira egiten dituzte, bai igerilekurako, bai lanerako, bai zaratentzako. Tapoi horiek profesionalak eta pertsonalizatuak dira, eta horien gama ere oso zabala da.

**Etxez etxeko zerbitzua ere eskaintzen du zentroak.**

E OPTIKA EGUREN

Domingo Bernaola, 1
GERNIKA-LUMO

94-625 04 51 · 687 86 61 11

IRIGOIEN OPTIKA



Zumatzeta kalea, 1 [ LEKEITIO ]
• 94-684 31 72 •
irigoienoptika@telefonica.net

# ZURE IKUSMEN OSASUNA ETA ENTZUMENA DIRA GURE LEHENTASUNAK

1995.urtean sortua. Instalazio modernoak ditugu oso ondo hornituak. Hurbilagoko tratua, zerbitzu profesionala eta azken teknologiaz baliatuz kalitate ezin hobea eskaintzen dizkizugu ikusmenaren eta entzumenaren tratamenduan.

**IKUSMENA:**

- Ikusmenaren graduazioa
- Ukipen-lenteak egokitzea
- Begietako tentsioa hartzea
- Erretinografo digital konputerizatua
- Ikusizko azterketa
- Ukipen-lenteen berrikuspenak eta egokitzapenak
- Tonometria

**AUDIOPROTESISTA:**

- Audiofono digitalak
- Audifonoen berrikuspenak eta egokitzapenak
- Entzumenerako laguntza
- Uraren eta zaraten kontrako tapoiak neurrira

**• ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA.**
**• DESKONTU BEREZIAK: IMQ, FREMAP, MUTUALIA.**
**• EGUZKITAKO BETAURREKOETAN ETA BETAURREKO GRADUATUETAN AUKERA ZABALA:** Dolce &Gabbana, Ray Ban, Etnia Barcelona, Silhouette, Serengeti ...



## AKARREGI HAGIN KLINIKA

Paskual Abaroa Etor., 26 bis-behea • LEKEITIO • **688 82 68 31** • **94-684 27 02** •
acarreguiclinicadental@gmail.com

**Juan Jose Akarregi Loyola** doktorea (Kolegiatu zkia.: 573)
Mediku estomatologoa

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Hortz-inplanteak
- Periodontzia

**Ordutegia:** Astelehenetik eguenera: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00
Barikuetan: 08:00 - 14:00
Ekainaren 13tik irailaren 30era: 08:00 - 14:00

HAGIN KLINIKA

Alday
HORTZ KLINIKA

## ALDAY HAGIN KLINIKA

San Agustin, 5 behea • MUTRIKU • **943-60 39 53** • klinikaalday@gmail.com

- Inplanteak
- Ortodontzia
- Periodontzia
- Protesiak
- Odontologia estetikoa
- 3D eskanerra eta ortopantografia

**Ordutegia:** Astelehenetik eguenera: 10:00-13:30 / 15:30-18:30 •
Barikuak: 10:00-13:30

HAGIN KLINIKA



## ARTIBAI HAGIN KLINIKA

Artibai kalea, 6-1 esk. MARKINA-XEMEIN • **94-616 61 60** • haginklinikaartibai@gmail.com

Azken teknika eta teknologia odontologikoak erabiliz,
era guztietako tratamenduak egiten ditugu.

- Ortodontzia
- Peridontzia
- Odontologia Estetikoa
- Hortz- protesiak
- Inplanteak

**Ordutegia:** Astelehenetik eguenera: 08:00-20:00
(ez dute eguerdian ixten)
Barikuetan: 08:00-15:00

HAGIN KLINIKA

HAGIN KLINIKA

## GALDER ETA NAHIA HAGIN KLINIKA

Paskual Abaroa Etorbidea, 45 - 1.A • LEKEITIO • **94-624 31 39** • galderbelokihk@gmail.com

- Inplanteak
- Ortodontzia
- Periodontzia
- Protesi mugiezinak eta mugigarriak

**Ordutegia:** Astelehen eta eguaztenetan: 12:00 - 20:30
Martitzen eta eguenetan: 08:00 - 16:30
Barikuetan: 08:30 - 15:30

HAGIN KLINIKA

## LUKENE ETA ARIANE HAGIN KLINIKA

San Ignazio, 59 • ONDARROA • **94-683 32 20**

- Inplanteak
- Odontologia orokorra
- Odontopediatria
- Ortodontzia
- Hortz estetika
- Periodontzia

HAGIN KLINIKA

## OTXAGABIA HAGIN KLINIKA

Artabide, 26-behea ezk. B • ONDARROA • **94-683 04 62**

**Juan Carlos Otxagabia Urriz** doktorea
Mediku - odontologoa

- Aho barruko eskanerra
- Protesiak
- Ahoko estetika
- Ahoa mantentzea eta higienea
- Erradiologia
- Mikrokirurgia
- Periodontzia
- Inplanteak
- IGUALATORIOA (I.M.Q.)

**Ordutegia:** Astelehenetik barikura: 09:30 - 15:30



AINITZE LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA
(Kolegiatu zbk.: BI03989)

*«Nire bizitzako xedeetako bat da gizartean psikologoarengana jotzea naturaltzat hartzea, osasun metal eta ongizate emozionala normalizatzea duindunduz»*

# Sena psikoterapia, zure bizi-kalitatea hobetzeko esparrua

Familia guztiari eta familia mota guztiei zuzendutako orientazio eta psikoterapia zerbitzua eskaintzen dute Senan, bakarka, bikote edo familia modalitatean.

Ainitze Lekerikabeaskoa Arrillaga psikologo eta psikoterapeutak 15 urte baino gehiagoko esperientzia dauka esku-hartze psikosozialaren arloan. Besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakume eta Familien Zerbitzuen menpeko programetan lan egin du. 2016 urtean, kontsulta propioa zabaltzea erabaki zuen Markina-Xemeinen. Sena psikoterapia zentroak familia guztiei eta familia mota guztiei zuzendutako orientazioa eta psikoterapia zerbitzua eskaintzen du.

Familiako eta bikoteko **psikoterapia sistemikoan** aditua da Lekerikabeaskoa. Terapia sistemikoaren oinarria da arazoak konpontzeko ikuspegi praktikoa erabiltzea. Ez da gizabanakoa ulertzen mundu osotik banandutako norbait bezala. Pertsona bakoitza guraso batzuengandik dator, eta haiekin eta jatorrizko familia-sistemarekin (gurasoak, aitona-amonak eta anai-arrebak) lotuta jaio eta bizitzen da.

"Azken hau kontutan izanda, ez da arraroa, bikote harreman batean zailtasunak bizitzea. Izan ere bakoitzak bere motxila dauka, bizitako eta ikasitako esperientziekin, kontziente nahiz inkontzienteki. Halaber, bikotean bizitzeak ez du automatikoki zoriontasuna ematen. Bikote bat partekatzeko, konpainia eta intimitatea eskaintzeko eta elkarrekin bide bat zeharkatuz hazteko diseinatuta dago. Bakoitzak bere familiatik jasotzen dituen ondare, dinamikak eta ezkutuko leialtasunak ezagutzeak, asko laguntzen du etorkizuneko bide horretan".

Hori dela eta, banaka, bikote edo familia osoarekin lan egiteko aukera eskaintzen du. Norbanako, familia edo bikotearen portaeraren barruan eredu disfuntzionalak identifikatu, eta jokabide patroi horiek zuzenean zuzentzeko.

Terapia ez da mugatzen arazo konkretu batera, pertsona orokorrean hartu eta haren egoera osotasunean lantzen da.

Ahozko saioez gainera, zuhaitz genealogikoaz eta Play Mobil panpinez baliatzen da terapiak sendotzeko. Zuhaitz genealogikoa informazio iturri gisa erabiltzen du, eta panpinak erreminta proiektibo bat dira egoera desberdinak identifikatu, behatu, eta posible den einean aldaketak kudeatzeko.

**Psikoterapia, hausnartzeko eta harremana behatzeko** aukera ematen duen esperientzia gisa ulertzen du Lekerikabeaskoak, bai norberarekin zein inguruko pertsonekin ditugun harremanei esanahi berriak eraikitzea ahalbidetzen duena. Prozesu horrek pertsonaren bizi-kalitatea hobetzen du, esanguratsuagoa, atseginagoa eta produktiboagoa izatea bideratuz. Beti ere, segurtasuneko espazio batean, entzutetik hasita eta epaiketarik gabe. Euskaraz lan egiteko aukera eskaintzen du, horrek ematen duen lasaitasuna ere esanguratsua baita.

"Nire bizitzako xedeetako bat da gizartean psikologoarengana jotzea naturaltzat hartzea, osasun mental eta ongizate emozionala normalizatzea duinduz".

Sena
PSIKOTERAPIA

Xemein Etorbidea, 12A - 3. pisua
MARKINA-XEMEIN
**689 13 15 93**
senapsikoterapia@gmail.com
**www.senapsikoterapia.eus**
@senapsikoterapia



# Uribarren Abaroa

*fundazioa* ► Egoitza
Eguneko Zentroa

www.uribarren.es

